

BERDINTASUN KONPROMISOA

Azken urteotan, generoari buruzko hainbat diagnostiko egin, dagozkion Berdintasunerako Planak ezarri eta ebaluatzeari esker, lan ibilbide bat finkatu da, enpresa honetan eta, hedaturaz, gizarte osoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiten jarraitzeko.

Parte hartzen ahalegintzeko konpromisoa ere bada, horri esker NEIKEReko langile kopuru esanguratsu baten iritziak eta proposamenak jaso ahal izan baitira, elkarriketen, eztabaida taldeen, langileentzako inkestaren eta Negoziazio Batzordearekin egindako kontrastearen bidez, hori arduratu delarik prozesua gidatzeaz.

Azkenik, NEIKERen Zuzendaritzaren konpromisoa da bere kudeaketa eta berdintasun politikak indarrean dauden lege jarraibideetara egokitzeko beharrezko neurriak erakundeari helarazten jarraitzea, bereziki: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 1/2022 Legea, martxoaren 2koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzen duena; 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko

presako neurriena; eta 11/2014 Dekretua, Emakunderen aldetik Lankidetzaren Erakundearen aitortpena arautzen duena.

lido horretan, gure ustez, generoaren ikuspegia erakundearen transbertsalizatzeko estrategia etengabe garatzeko gero eta pertsona gehiagoren inplikazioa lortu behar da; berdintasunaren arloan etengabeko ikaskuntza eta komunikazioa bermatu behar ditu, bai barrurantz (langileak ardura maila guztietan kontzientziatuz), bai kanporantz (gizarteari kontuak emanez eta praktika onak zabalduz); langile guztientzat errespetuzko eta ahalduzko lan ingurunea bermatu behar du; eta sareko lana sortu behar du, beste euskal enpresa publiko batzuekin eta instituzioekin aliantzak bilatuz

NEIKERek adierazten du konpromisoa duela emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna ezartzeko, gure politika korporatiboaren eta Giza Baliabideen politikaren printzipio estrategiko moduan.

Enpresa honen jardura garatzen den esparru bakoitzean eta guztietan, hautapenetik sustapenera, eta lansari politika, prestakuntza, lan eta enplegu baldintzak, lan osasuna, lan denboraren antolamendua eta kontziliazioa ere barne hartuta, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa gure egiten dugu, arreta berezia jarritz zeharkako diskriminazioari, horrelakotzat ulertuta itxura batean neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek sortzen duen egoera, zeinaren ondorioz sexu bateko pertsona bat desabantaila nabarmenean geratzen baita beste sexuko pertsonetikiko.

Adierazitako printzipioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak ezarriz gauzatuko dira, langileen legezko ordezkaritzarekin batera, adostutako berdintasun neurriak garatzeko eta ebaluatzeko prozesu osoan.

Data / Fecha:

22/06/13

Sinadura / Firma:

Leire Barañano
Zuzendari nagusia